



6. AKTA

2004ko martxoaren 30ean ospatutako **OHIKO UDALBATZA**.

Pasaiako Hirian eta Pasai San Pedroko Udal Aretoan, bi mila eta lauko martxoaren hogeita hamarrean, Izaskun Gómez Cermeño Alkate andrearen presidentzian, Joseba Belaustegi Cuesta Behin-behineko Idazkaria bertan delarik, hurrengo zinegotziak bildu dira:

PSE-EE-tik

Lore Suárez Linazasoro a.
Rafaela Romero Pozo a.
Lucía Querido Noceti a.
Juan Manuel Domínguez López j.

EAJ-tik

Jose Luis Goikoetxea Garmendia j.
Jose Manuel Anso Martínez j.
Juan Ignacio Lasurtegi Berridi j.
Joaquín Martínez Vidal j.

EA-tik

Aitor Larrañaga Burguera j.
Mariví Roteta Mujika a.
Miriam Cano Puy a.

EB-IU-tik

Jesús M^a García Garde j.
Fco. Javier Pombo González j.

PP-tik

Guillermo Sánchez-Berra Quintana j.
Juan Ramón González Medrano j.
José Luis Mtez. de Espronceda Luiña j.
arauz kurtsatu eta publikatu den deialdiaren arabera Aparteko Udalbatza ospatzeko. Halaber da bertan funtzioz Kontuhartzailea den Nerea Karmele Lizaso andrea.



Lehendakaritzak konstataturik Udalbatza legez osatzeko behar hainbat partaide etorri dela, batzarraldia irekitzat eman du 9:00etan, ondoren Gaizerrendako hurrengo puntuak aztertzeari ekinez.

* Aurrera jarraitu baino lehenago, andre Alkateak, Korporazioak aurrez onaturik, proposatu du mahai gainean uztea Gaizerrendako 12. puntua “Aurrekontua behin betiko onartzea” aurkeztu diren erreklamazio eta txostena direla eta, horregatik Ogasun eta Ondarearen Batzorde Informatiboaren beste bilera batera deituko da.

1.- Aurreko batzarraldietako aktak irakurri eta, hala badagokio, onartzea. Hurrenez hurren 3. 4. eta 5.ak, 04-2-24, 04-02-26 eta 04-03-17koak hain zuzen ere.

ertakoen kontsiderazioan jarririk atalburuan aipatzen diren aktak, Udalbatzak aho batez erabaki du ontzat eman eta dagokien Akta Liburuan transkribatzea, behin eta ondorengo zuzenketa eginik:

- 4.zko aktan, 9. orrialdean “prologado” dioen lekuan, “prorrogado” jarri behar du.

2.- Xedapen ofizialak eta alkate eta zinegotzi-delegatuen ebazpenen berri ematea.

Bertakoen kontsiderazioan jarririk Alkatetza eta Zinegotzi Delegatuen Ebazpenen Liburua, Udalbatza jakinean geratu da.

- Partido Popularreko taldearen eledunak aurkeztu idazkia aipatu da, non adierazten den honen ordezkartza Udal honetako Batzorde Informatiboetan eta Organismo Autonomoetan.
- Halaber eman da jakitera 2003ko abenduaren 3ko Auzitegi Gorenaren Autoa, Pasaiako Udal honek 2000ko maiatzaren 11an Euskal Herriko Justiziaren Auzitegi Nagusiaren Liskar Auzi Administratiboaren Salaren epaiaren aurka tartekaturiko Kasazio Errekurtsoan emana, 617/97 Errekurtsoan diktatua Portuaren Agintean eraisten ari diren obrak paralizatzeaz, epaiak Kasazio Errekurtsoa ontzat ematen ez duelarik.

Jasorik aipatu epaiaren testigantza, zeina sendo bihurtu baita, Udalbatzak bertako zinegotzien aho batez

E R A B A K I D U

Epai bere ondorioetara eramatea, zeinak ez baitu eskatzen inolako aktuaziorik zeren eta bere helburua eraispen obren paralizazioa baita eta hau exekutatu izan da.

**3.- Alkatetzaren jectioak eta Gobernu Organoen kontrola (T.E.O.L.ren 46.2.e) artikulua
arabera).**

Andre Alkateak aditzera eman ditu azken hilabetean egindako jectioak:

- Oarsoaldea, S.A.-ren Kontseilua ospatzea.
- Eusko Jaurlaritzako Garraio Kontseilua den Aman jaunaren bisita, trenbideari buruz eskualdeko Alkatearekin.
- Ruiz Romerori omenaldia.
- Madrazo Etxebizitzako jaun Kontseiluari bisita, zeinak bisitatu baitzituen Puntasko Pasealekuko obrak eta Pasaiako eskualde degradatuak.
- Gas Pasaiaren administrazioaren kontseilua.
- Poloniako haurren harrera Pasaia lizeoaren elkartruke baten programan.
- Portuko Aginteko Espel jaun lehendakariarekin bilera Herrerako eraispenak eta hondamendientzat Eusko Jaurlaritzaren Laguntzak direla eta.
- Eudelen Batzar Nagusia.
- Portuko Agintearrekin eta SPRIrekin bilera Navalaldearen gaia desbuxatzeko, hau era monografikoan eta zabalago tratatuko delarik Eledunen Juntan.
- Azkenik, atzo Badia Berriren administrazioaren Kontseilura joatea.

Donostiarekin osatutako Batzorde Mistoari buruz Guillermo Sánchez-Berra Quintana Partido Popularreko zinegotzien taldeko eledunak interpelaturik adierazi du Pazkoako Asteaz gero Eledunen Junta deituko duela gai hau tratatzeko.

ERANSKINA

4.- Hirigintzako hitzarmena, Arrandegi 2.05.02 HEan desjabetuko den lursailaren balio justua zehazteari buruzkoa.

2003ko martxoaren 31n udal Arkitekto kontseilariak txosten bat luzatu zuen non seinalatzen zuen Ortuibar, S.A.-k ez zuela A.U.P. 02 - E.E. 53 partzelaren zesio osoa egin eta maiatzaren 22an errekeritu zitzaion Konbenio Urbanistikoa betetzea. Interesatuak komunikatu zuen terrenoa erosten saiatu zelarik, ezin izan duela ezein akordiotara iritsi.

Exekuzio Unitateko Urbanizazio Proiektua 2003ko irailaren 16ko bileran onartu zuen Gobernu Batzordeak eta exekuzioa bukatzeaz dago.

Hirigintzako Zinegotzi Delegatuak 2003ko abenduaren 2an ebazpena diktatu zuen non besteak beste esaten zen:

“HIRUGARRENA.- Euskadi Etorbidea 53ko jabeakideei jakinaraztea Udalak lursaila adostasunez erosteko asmoa duela, eta horretarako 6.120 eurotan baloratu duela. Jakinarazpen hau egiten da balio justuarekin ados dauden ala ez ager dezaten. Ebazpen hau jakinarazi eta HAMAR EGUN igaroz gero Udalak ondorioztatuko du adostasunik ez dagoela jabeen aldetik, eta nahitaezko desjabetzaren espedienteari ekingo dio”.

“Lagatzeko falta den azalera 36 m koadrokoa da, eta udal arkitekto andrearen iritzian m² -ko 170 euro inguru balio dezake.”

A.U. 2.05.02 “Arrandegi”-ri buruzko Konbenio Urbanistikoaz, Ortuibar, S.A. enpresak bere gain hartu du bertan estipulatzen denaren exekuzioa egiteko beharrezko terrenoak erostea.

Finkaren administrariak Komunitatearen izenean, 2004ko martxoaren 1eko idazkian, idatziz aurkeztu du zesioa onartzea, baina besteak beste, 210,35 euro/m²-ko eskatuz, Udal honentzat erabat onargarria den proposamena.

Udalbatza da Konbenio urbanistikoa onartzeko organo kompetentea proposamen honi erantsiriko prezio justua finkatzeko, eta beraz Hirigintza eta Ingurumenaren Udal Batzorde Informatiboak 2004ko martxoaren 10ean egin zuen proposamenez, Udalbatzak, bertako zinegotzien aho batez,

ERABAKI DU

LEHENENGO.- A.U. Arrandegi 2.05.02 delakoan dagoen terreno zatiaren prezio justua ezartzeko Konbenio Urbanistikoa onartzea, akordio honi eranski bezala lotzen zaiona.



BIGARREN.- Andre Alkatea gaitzea akordio hau betetzeko beharrezko akordio guztietarako.

HIRUGARREN.- Akordio honen berri interesatuei ematea legozkiekeen errekurtsioekin.

ERANSKINA

“Pasaiako, 2004ko apirilaren ...an.

BILDURIK

Joseba Andoni Belaustegi Cuesta Pasaiako Udal Txit Prestuko Behin behineko Idazkari jaunaren aurrean.

Alde batetik: IZASKUN GOMEZ CERMEÑO Andrea, adinez nagusia, dokumentu honetarako bizilekua Pasaiako Udaletxean duena, ENA

Beste aldetik: jauna, adinez nagusia, industrialia, bizi dena, ENA

Eta azkenik: Juan Manuel Sañudo-Lasagabaster Fernandez jaunak, adinez nagusia, industrialia, Donostian bizi dena, ENA 15.335.190-D.

PARTE HARTU DUTE

..... Andreak Pasaiako Udal Prestuaren izenean, bertako Alkate-Lehendakaria izanik, eta agiri hau izenpetzeko ahalmena duena 2004ko arenko batzarraldian aipatutako Udalbatzak hartutako erabakiaren arabera.

.....jaunak Euskadi Etorbidea 53. zenbakiko jabekideen komunitateko Lehendakaria izanik, egoitza eraikin horretan duena eta IFK

José Andrés Garitano Astigarraga jaunak “ORTUIBAR, S.A.” Sozietate Anonimoaren ordezkaria izanik, egoitza Bergaran, Ibargarai kalea, 18 behea eta IFK A-20173589.

Parte hartzaileek batak besteari beharrezko eta nahiko gaitasuna aitortzen dio dokumentu hau suskribatzeko.

AURREKARIAK

LEHENENGOA.-

2000ko maiatzaren 30ean Gipuzkoako Foru Aldundian onartutako Pasaiako Arau Subsidiarioen Aldaketa Puntualak zehazten du 2.05/02 Arrandegi Hirigintz Arearentzat Araneder kalea luzatzea Gudarien Plazarekin komunikatuz Euskadi etorbideko 53aren behebarruan zehar. Honetarako, desjabetza-eremu bat ezartzen du “4.10 Arrandegi”-n (Euskadi etorbidea, 53) 167 bat m²-ko azalerarentzat, bi lokalek okupatzen dutelarik Euskadi etorbideko 53ko behebarruan, desjabetzaren, kalteordainaren, urbanizazioaren eta abarren gastuen kargu A.U. Arrandegi 2.05/02-ko garapenaren promotoreak, desjabetzaren erremuarekin batera.

BIGARRENA.-

Ortuibar, S.A. enpresak, Jose Andrés Garitano Astigarraga jaunak ordezkaturik, Pasaiako Arrandegi kaleko 4 eta 6ko orubeetan kokatzen diren sei mila ehun eta laurogeita bost metro eta hirurogeita hamaika zentimetroko (6.185 m²) terrenoaren jabeak ekin die beharrezko izapideei A.U. ARRANDEGI 2.05/02 garatzeko eta, beraz, aipatu Areari loturiko desjabetza-eremuak sorturiko gastuen kargu eginez.

HIRUGARRENA.-

Duela gutxi 36 m² azalera duen lurzati bat eskuratzeko dagoela egiaztatu da. Hiritartzeko lanak bukatzeko eskuratu behar den luzatiak ondorengo deskribapena du:

Kale mailan dagoen eraikigabeko patioa, 36 m²koa, laukizuzena, Euskadi Etorbidea 53. Zenbakiko eraikinaren elementu erkidea, eta honen Mendebaldeko muga kokatua. Eraikina ondorengo datuekin inskribituta dago: folioa 144, Pasaiako 104. liburua, Tomoa 1173, finka 778..

Ortuibar, S.A., Euskadi Etorbidea 53. zenbakiko jabeekideek eta Pasaiako Udalaren artean izandako elkarrizketen ondorioz, Hirigintzako Hitzarmen hau idatzi eta sinatzen dute, ondorengo estipulazioak dituenak:

ESTIPULAZIOAK

LEHENENGOA.-

Pasaiako Udalak ondorengo lurzattia desjabetuko du:

Kale mailan dagoen eraikigabeko patioa, 36 m²koa, laukizuzena, Euskadi Etorbidea 53. Zenbakiko eraikinaren elementu erkidea, eta honen Mendebaldeko muga kokatua. Eraikina ondorengo datuekin inskribituta dago: folioa 144, Pasaiako 104. liburua, Tomoa 1173, finka 778..

BIGARRENA.-

Euskadi Etorbidea 53. zenbakiko Jabeekideen Komunitateak desjabetzapena onartuko du elkarren arteko adostasunez ezarritako 210,35 euro/m²ko prezioan. Horretarako eta besterentzea egiteko beharrezkoak diren dokumentu guztiak sinatuko ditu, eta zehatzki okupazio eta baliojustuaren ordainketa agiriak.

-

HIRUGARRENA.-

“Ortuibar, S.A.”k ondorengo konpromisuak hartzen ditu.

- Desjabetzak erakarriko dituen gastuak ordaindu beharko ditu.

- Lurzatiaren hiritartze lanak ondo gauzatzea; hori bermatzeko hiritartzeko obrak bermatzeko ezarrita duten 75.000.000 pezetako abala dago.

LAUGARRENA.-

Hirigintz Konbenio hau interpretatu, bete edo ez betetzean sor daitezkeen arazo guztietarako eta bere inguruan sortutako beste edozeineterako, aldeek erabaki dute beren foru propioari uko eginez Donostian ontzat ematea horretarako ezarrita dauden xedapenak.

Eta aurreko guztiarekiko adostasunaren agiritzat, dokumentu hau suskribatzen dute ale hirukoitzean eta ondorio bakarrerako, atalburuan aipatu diren leku eta datan”.

- Aktan konstarazteko hona hemen hurrengo interbentzioak:
- Udalbatzarako deialdiarekin batera taldeei diktamenaren kopiarik ez zitzaizela bidali eta kexaturik, Alkate andreak hurrengo Ebazpena eman du Udalbatzak prestatzeaz:

Udalbatza ospatu aurreko ostegunean egingo da deialdia, Gaizerrendan sartuko direlarik bakarrik aurreko astelehenean Udal Idazkaritzan egongo diren gaiak baina espediente osoa diktamenarekin batera izango dutenak. Hau guztia beteko ez duen gai edo espedientea ez da Udalbatzan sartuko.

Idazkaritzak zirkular bat bidal diezaiela Sail guztiei honen berri emanaz.

5.- Hitzarmena, Trintxerpe Goia Eremuan ingurumen-eragina batera ebaluatzeko Proiektuaren erredakzioa finantzatzeko.

2003ko uztailean Udalbatzak Pasaiako Trintxerpe Goia eremuko AASSen aldaketaren irizpide eta konponbide orokorrak onartu zituen.



Uztailaren 22ko 183/2003 Dekretua 2003ko irailean argitaratu ondoren, ondokoa eskatzen da: ingurumen-eraginari buruzko ebaluazio bateratua jasoko duen agiria batera bideratzea, lurzoru urbanizaezinei buruzko AASSak aldatzeko espediente batean.

Egoera horretan, uste dugu ez dela espediente honetan aplikatzekoa; nahiz eta hasiera batean onartutako dokumentuak 8. atalean ebaluazio bateratu bat jasotzen duen.

Hala ere, garapen iraunkorreko sailarekin hitz egin ondoren eta segurtasun handiagoa lortze aldera, erabaki zen ingurumen-eraginaren ebaluazio bateratua egitea, lur urbanizaezinari dagokiona.

Horretarako, eta lur horien garapenerako hitzarmen bat dagoenez, Orbela SARI hitzarmena sinatzeko proposamena egin diogu, ikerketa bat finantzatze aldera.

Hirigintza eta Ingurumenaren Udal Batzorde Informatiboak 2004ko martxoaren 10ean egindako proposamenez, Udalbatzak, bertako zinegotzien aho batez,

ERABAKI DU

LEHENGOA.- Orbela, SAREkin hitzarmena sinatzea, Trintxerpe Goia eremuko AASSen aldaketak izango duen ingurumen-eraginaren ebaluazio bateratuaren erredakzioa finantzatzeko.

BIGARRENGOA.- Alkate andrea gaitzea akordio hau betetzeko beharrezkoak diren erabakiak har ditzan.

ERANSKINA

“Pasaian, 200ko

BERTARATU DIRA

Joseba Belaustegi Cuesta Pasaiako Udaleko idazkaria bertan dela

Alde batetik **IZASKUN GÓMEZ CERMEÑO**, adinez nagusia, nortasun agiriaren zenbakia duena. Dokumentu honetarako helbidea: Pasaiako Udala.

Bestaldetik: **JOSE IGNACIO DAGUERRE-SSAR PASTOR**, nortasun agiriaren zenbakia 15.867.074 duena, **ORBELA, S.A.** enpresaren izenean. Merkataritza-sozietatearen helbidea: San Bartolome, 27-behea, IFZ: A-20066999.

PARTE HARTU DUTE



Izaskun Gómez Cermeño Andereak, Pasaiako Udalaren izenean eta ordeztuz, alkate-lehendakaria den heinean; dokumentu hau sinatzeko gaitua, 2004ko ekainaren ...ko osoko bilkuran hartutako akordioaren arabera.

JOSE IGNACIO DAGUERRESSAR PAS-TOR jauna, ORBELA, S.A. merkataritza-sozietatearen izenean, Donostiako notarioak, AGUSTIN LAMSFUS jaunak, 81-6-22an emandako eraketa- eta ahalordetze-eskrittura publikoaren bidez akreditatua.

Bi alderdiek dokumentu hau sinatzeko nahikoa gaitasun aitortu diote elkarri.

AURREKARIAK

LEHENENGO

ORBELA, S.A. enpresak 2003ko apirilaren 29ko idazkiaren bidez Udal honi jakinarazi zion CUPRA, S.L. enpresari subrogatzea 2003ko otsailaren 28an Pasaiako Udalarekin suskribatutako Konbenio Urbanistikoak sortzen dituen eskubide eta betebeharrak guztiak.

BIGARREN

Aipatu Konbenioa beteaz, Pasaiako Udala tramitatzen ari da Konbenioko aipatu Planeamenduko Arau Subsidiarioen Modifikazioa..

HIRUGARREN

Aipatu tramitazioak eskatzen du Ingurumen Inpaktuaren Ebaluazio Bateratua egitea, zeinen enkargua eta finantziakoa Konbenio honen helburua izango lirartekeen.

ESTIPULAZIOAK

LEHENA

Hitzarmen honek bere egiten ditu aurrekarietan aipatu ditugun Pasaiako Arau Subsidiarioetako eta BEPBko aginduak.

BIGARRENA.-

Finantziazioa akordio hau sinatu duten bi aldeek burutuko dute hurrengo proportzioan: %57,27 Orbela, S.A.-ren kargura eta gainerakoa, %42,73, Pasaiako udalaren kargura. Eremuak 11 ha-ko azalera hartzen du, eta hauetatik 6,3 ha. Orbela, S.A.-ri dagozkio.

HIRUGARRENA.-

Uste da proiektua egitearen kostua 7.000,00 eurora iritsiko dela gehi BEZ.

Eta adostasunaren frogatzat, parte hartu duten aldeek, aktuzioaren arabera, konbenio hau suskribatu dute, laukoizturik eta ondorio bakarrerako, atalburuan aipatzen diren leku eta datan.”

- Aktan konstarazteko hona hemen bozketaren emaitza: aldeko HAMALAU (14) boto PSE-EE (5), EAJ-PNV (4), EA (3) eta EB-IU (2) alderdiek emanak eta HIRU (3) abstentzio PP alderdikoan.

PERTSONAL ETA ADMINISTRAZIOA

6.- “Arrokaundietako aterpetxearen kudeaketa eta animazioa” kontratatzeke espedientea onartzea.

Udalbatzak, bertako zinegotzien aho batez eta Gazteria eta Kirolen Udal Batzorde Informatiboak 2004ko martxoaren 22an egindako proposamenez,

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- “Arrokaundietako aterpetxearen kudeaketa eta animazioa”-rentzat ontzat ematea kudeaketa-zerbitzuaren espedientea.

BIGARRENA.- 9.360,00 euroko gastua onartzea 1.06.00.227.457.01.99 kargura.

HIRUGARRENA.- Esleipenerako lehiaketa irekiaren tramiteak irekitzea eta ohiko tramitazioa izatea.

LAUGARRENA.- Lizitazioa arautzeko klausula ekonomiko-administratibo eta teknikoen plegua onartzea, 781/96 Erret Dekretu Legislatiboaren 122 eta 123 artikuluen arabera publikatuko delarik.



BOSGARRENA.- Esleipen prozedura Gipuzkoako Buletin Ofizialean iragartzea lehen aipatutako Kontratuen Legeko 79. artikularen arabera.

7.- Trintxerpeko Jubilatuen Etxeko ileapaindegia ustiatzeko kontratua aldatzea.

Udalbatzak, bertako zinegotzien aho batez eta Pertsonal eta Administrazioaren Udal Batzorde Informatiboak 2004ko martxoaren 26an luzatutako diktamenez,

ERABAKI DU

XABIER POMBO GONZALEZ Gizarte Ekintzako jaun zinegotziaren baitan delegatzea Trintxerpeko Jubilatuen Etxeko ile-apaindegiaren zerbitzuaren kudeaketaren kontratua interpretatzea, horretarako beharrezko instrukzio edo aginduak emateko gaituz.

* Aktan konstarazteko esan Xabier Pombo Gonzalez jaun zinegotziak ez duela parte hartuko bozketan.

- Interbentzioen kapituluan hurrengoak eman dira:
 - Guillermo Sánchez-Berra Quintana Partido Popularreko jaun zinegotziak protesta egin du diktamena ostegunean bidali ez zitzaielako.
 - Marivi Roteta Mujika EAko andre zinegotziak Gizarte Zerbitzuen zinegotzi delegatuari zentsuratu egin dio gaia zegokion Batzorde Informatiboan ez tratatua izatea.
 - Xabier Pombo González EB-IUko jaun zinegotziak adierazi du Idazkaritzak esan ziola gai hau Pertsonal eta Administrazio Batzordeari zegokiola, kontratazio-gaia delako, eta beraz Gizarte Egintzari ez dagokiona.
 - Guillermo Sánchez-Berra Quintana jaunak galdetu dio azkenik Gizarte Egintzako zinegotzi delegatuari ea noiz izan den Gizarte Zerbitzuen azken Batzordea.

8.- Faroko Pasealekuan dagoen udal lokalaren zati bat lagatzea (berraztertze errekurtsoa).

Udalbatzak, bertako zinegotzien aho batez eta Pertsonal eta Administrazioaren Udal Batzorde Informatiboak 2004ko martxoaren 26an luzatutako diktamenez,



ERABAKI DU

LEHENENGO.- Faroaren pasealekuko 1. zk.ko jabekideek aurkeztutako Berraztertzeko Errekurtsua ezestea, ondareko administrariak bere txostenean agertzen dituen arrazoiengatik ez zaiolako zuzenbideari lotzen. Beraz, 2003-11-25eko udalbatzarrean hartu zen erabakia erabat mantentzen da.

BIGARREN.- Hala ere, Udalak normala den bezala bere gain hartuko duela igogailua instalatzeko eta lokala erosteko jabekidea den aldetik dagokion partizipazio-kuotaren arabera.

OGASUNA

9.- Sarreretako hondakinen deuseztapena.

Udalbatzak, bertako zinegotzien aho batez eta Ogasun eta Ondarearen Udal Batzorde Informatiboak 2004ko martxoaren 17an luzatutako diktamenez,

ERABAKI DU

LEHENENGO.- Kontabilitatearen zerrendaren arabera, sarreretako hondakinei baja ematea, 5.660,52 euroko kantitatez. Hau behar bezala diligentziatuta espedientean agertzen da.

BIGARREN.- Errenten zerrendaren arabera, sarreretako hondakinei baja ematea, 137.235,79 euroko kantitatez. Hau behar bezala diligentziatuta espedientean agertzen da.

HIRUGARREN.- Gordailuzaintzaren zerrendaren arabera, preskripzio kontzeptuagatik sarreretako hondakinei baja ematea, 15.699,96 euroko kantitatez. Hau behar bezala diligentziatuta espedientean agertzen da.

LAUGARREN.- Gordailuzaintzaren zerrendaren arabera, kobratu gabeen kontzeptuagatik (14. zerrenda) sarreretako hondakinei baja ematea, 72.970,00 euroko kantitatez. Hau behar bezala diligentziatuta espedientean agertzen da.

BOSGARREN.- Gordailuzaintzaren zerrendaren arabera, kobratu gabeen kontzeptuagatik (14. zerrenda) sarreretako hondakinei baja ematea, 441,54 euroko kantitatez. Hau behar bezala diligentziatuta espedientean agertzen da.

10.- Kredituak aldatzea. Txertakuntza-espedientea.

Ogasun eta Ondarearen Udal Batzorde Informatiboak 2004ko martxoaren 17an luzatutako diktamenez, Udalbatzak bertako zinegotzien aho batez,

E R A B A K I D U

2003ko Aurrekontu kredituak 2004ko Aurrekontuan txertatzea onartzea hurrengo eran:

GASTUA-GASTO			
<u>Kontusaila-Partida</u>	<u>Izena-Denominación</u>	<u>Importe</u>	
1 1,01,00,226,313,50,02,2003	hermanamientos	1.317,00	
2 1,01,00,227,121,01,03,2002	troe valoración puestos trabajo	2.225,10	
3 1,01,00,227,121,01,07,2003	aplicación l.o. Protección datos	6.194,40	
4 1,01,00,623,121,01,02,2003	adquisición mat informático	1.640,01	
5 1,01,00,780,121,00,01,2003	gastos comunidad extraordinarios	4.678,83	
6 1,02,00,227,611,00,07,2003	troe auditoría	9.900,00	
7 1,02,00,227,611,00,99,2003	troe asesoría legal	1.568,64	
8 1,04,00,480,313,20,02,2003	gastos emergencia social	506,00	
9 1,04,00,480,313,30,01,2003	programa infancia-familia	3.000,00	
10 1,04,00,481,456,10,02,2003	centros de día	2.178,04	
11 1,08,00,227,432,00,07,2002	troe estudios y trabajos técnicos	6.584,16	
12 1,08,00,600,432,00,01,2000	adquisición patrimonio municipal suelo	7.015,94	
13 1,08,00,601,432,00,01,2001	urbanización u.e. antxo (molinao)	300.506,05	
14 1,08,00,601,432,01,02,1998	urbanización u.e. San juan	73.606,81	
15 1,08,00,601,511,10,01,2002	1 discriminación tráfico (izartu)	124.448,00	
16 1,08,00,601,511,10,01,2003	1 discriminación tráfico (izartu)	28.848,00	
17 1,08,00,601,511,10,02,2003	6 urbanización jardines (izartu)	124.120,00	
18 1,08,00,601,511,10,03,2002	7 reurbanizaciones (izartu)	52.865,00	
19 1,08,00,601,511,10,03,2003	7 reurbanizaciones (izartu)	30.772,00	
20 1,08,00,601,511,10,04,2002	reurbanización ria molinao (feder)	86.398,10	
21 1,08,00,601,511,10,04,2003	reurbanización ria molinao (feder)	171.549,00	
22 1,08,00,601,511,10,06,2003	paseo puntas (reurbanización)	208.894,43	
23 1,08,00,601,511,10,07,2002	2 nuevos accesos (izartu)	60.101,00	
24 1,08,00,601,511,10,07,2003	2 nuevos accesos (izartu)	218.769,00	
25 1,08,00,601,511,10,08,2003	1 urbanización antxo (perco 2002)	57.716,14	
26 1,08,00,601,511,10,09,2003	2 urbanización azkuene (perco 2002)	154.069,65	
27 1,08,00,601,511,10,10,2003	3 urbanización renteria (perco 2002)	199.383,00	
28 1,08,00,609,432,00,01,2003	ejecución subsidiaria obras	80.182,92	
29 1,08,00,609,432,00,02,2001	ejecución subsidiaria obras	5.647,12	
30 1,08,00,609,511,10,01,2002	3 derribo pabellones (izartu)	12.020,00	
31 1,08,00,609,511,10,01,2003	3 derribo pabellones (izartu)	24.040,00	
32 1,08,00,609,511,10,02,2002	4 realojos residenciales terciarios (izartu)	98.566,00	
33 1,08,00,609,511,10,02,2003	4 realojos residenciales terciarios (izartu)	98.566,00	
34 1,08,00,622,432,00,01,2000	rehabilitación patrimonio municipal	2.247,21	
35 1,08,00,622,452,10,01,2002	adecuación instalaciones	15.719,33	
36 1,08,00,622,511,10,01,2003	5 área nueva centralidad (izartu)	234.014,23	
37 1,08,00,622,511,10,02,2002	8 edificio social (izartu)	13.920,00	
38 1,08,00,622,511,10,02,2003	8 edificio social (izartu)	69.717,00	
39 1,08,00,643,432,00,01,2000	proyectos	14.520,82	
40 1,08,00,643,432,00,01,2001	proyectos y direcciones	7.086,70	

41	1,08,00,643,432,00,01,2002	proyectos y direcciones	39.709,36
42	1,08,00,643,432,00,01,2003	proyectos y direcciones	39.559,94
43	1,08,00,643,511,10,01,2002	9 asistencia técnica (izartu)	22.026,00
44	1,08,00,643,511,10,01,2003	9 asistencia técnica (izartu)	26.822,00
45	1,08,00,680,000,00,01,1998	patrimonio municipal suelo	3.207,00
46	1,08,00,680,432,00,01,2000	patrimonio municipal suelo	4.002,64
47	1,08,00,680,432,00,01,2002	patrimonio municipal suelo	79.509,08
48	1,09,00,201,622,20,01,2003	alquiler local actividad mercado antxo	802,53
49	1,09,00,212,433,00,01,2003	rmc maquinaria e instalaciones	2.413,92
50	1,09,00,212,452,20,01,2003	rmc maquinaria e instalaciones (polidep)	2.255,00
51	1,09,00,221,449,00,99,2003	productos limpieza	306,39
52	1,09,00,227,449,00,01,2003	troe mantenim limpieza zonas verdes	10.325,22
53	1,09,00,421,442,10,01,2003	aportación mancomunidad s marcos	9.919,00
54	1,09,00,601,511,00,01,2003	eliminación barreras arquitectónicas	8.599,99
55	1,09,00,622,111,00,01,2003	reforma integral 2 planta mercado trintxerpe	60.000,00
56	1,09,00,625,111,00,01,2003	equipamiento y mobiliario 2 planta trintxerpe	5.488,02
57	1,10,00,226,455,10,99,2002	gastos varios: actividades propias	1.198,65
58	1,10,00,226,455,10,99,2003	gastos varios: actividades propias	903,16
59	1,10,00,481,455,10,01,2002	subvención a favor activ euskara	3.005,00
60	1,10,00,481,455,10,01,2003	subvención a favor activ euskara	7.019,50

Guztira-Total 2.942.174,03

DIRU-SARRERA-INGRESO

2,08,00,710,511,10,01,2002	Izartu (compromiso)	247.651,00
2,08,00,710,511,10,01,2003	Izartu (compromiso)	553.234,00
2,08,00,791,511,10,01,2003	Feder (compromiso)	96.707,00
2,09,00,710,511,00,01,2003	eliminación barreras archit GV (compromiso)	2.705,00
2,09,00,720,511,00,01,2003	eliminación barreras archit DFG (compromiso)	945,99
2,02,00,870,611,00,02,2003	remanente tesorería	2.040.931,04

Guztira-Total 2.942.174,03

- Aktan konstarazteko hona hemen bozketaren emaitza: aldeko HAMAIIKA (11) BOTO pse-ee (5), ea-pnv (4) eta EB-IU (2) alderdietako zinegotzienak, SEI (6) abstentzio, EA (3) eta PP (3).

11.- Zerga Ordenantzak aldatzea. Gazteria arloko jardueren tasak.

Gazteria eta Kirolen Batzorde Informatiboak 2004ko martxoaren 22an luzatutako diktamenez eta bertako zinegotzien aho batez, Udalbatzak

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- Behin-beinekoz ontzat ematea zerbitzu-prestaziozko tasen modifikazioa Gazteria eta Kirolen alorreko programei buruz, hurrengo eran:

	Pasaian erroldatuak	Pasaian ez erroldatuak	
	Empadronados en Pasaia	No empadronados en Pasaia	
* "Abenturaz Blai" udako Udalekuak	96,41	118,90	* Colonias de verano "Abenturaz Blai"
* Udako Udaleku Irekiak		42,85	* Colonias Abiertas de verano

BIGARREN.- Informazio publiko eta audientziarako tramitea irekitzea interesatuei 30 egunez erreklamazioak eta iradokizunak egiteko.

HIRUGARREN.- Inolako erreklamazio edo iradokizunik egingo ez balitz, ordura arte behin-behinekoa izandako akordioa behin-betiko onartuko da.

12.- Aurrekontua behin betiko onartzea.

Gai hau mahai gainean geratu da.

Galdera eta eskaera.

- Mirian Cano Puy EAko zinegotzien taldeko andre eledunak andre Alkateari galdetu dio ea noiz ospatuko den Aurrekontua onartzeko Aparteko Udalbatza.
- Andre Alkateak erantzun dio esanez bere asmoa zela Aparteko Udalbatza deitzea, baina ikusirik aurkeztu diren erreklamazioen kopurua berak uste du ez dagoela denborarik Ogasunaren Batzordea deitzeko, eta beraz, hurrengo Ohiko Udalbatzan tratatu dela.
- Mirian Cano Puy andre zinegotziak adierazi du berak espero zuela Udalbatza honetara ekarriko zela Bizkaia pasalekuko obren esleipena.
- Andre Alkateak erantzun dio esanez esleituak izan direla eta Ozio enpresari hain zuzen ere, kontratuaren esleipena Alkatearen kompetentzia dela eta.
- Mirian Cano Puy andre zinegotziak halaber galdetu du kaia parkin bezala erabiltzeko portuaren gaiaz.
- Andre Alkateak erantzun dio Portuak erantzun duela eta probisionalki utzi duela horretarako erabiltzeko.



- Azkenik, Hirigintzako zinegotzi delegatuak galdetu du ea Bizkaia plazan lurrazpiko parkinaz estudioak egiteko urratsik egiten al den. Jesús García Garde jaun zinegotziak erantzun dio baietz.

Eta treatatzeko beste gairik ezean, 10:00etan batzarraldia amaitutzat eman da, honen eduki guztia akta honetan jasoz, hau Alkate andreak eta nik, Idazkari bezala ziurtatuz, sinatu dugularik.